

# Ezpalak

JON TORNER

## Eneko Azpiroz Jeas

eta Diego Glenny iruindarrek irabazi dute Spraikada graffiti lehiaketa, *Fashion Biktima* lanarekin. Gasteizko Egoitz Ponte *Ojodecuervo* eta Miguel Angel Medina *Kaponek* marraztutako *Kalean gara artea* obrak irabazi du bigarren saria, eta Berangoko Nuria Serranoren *Mundua kolorez bete* izenekoak hirugarrena. Graffitiak [www.spraikada.com](http://www.spraikada.com) web gunean ikus ditzakezue.



## Kazeta.info

egunkari digitalaren proiektuak irabazi du 2007ko Ekimen saria. Ofizialki irailean aurkeztuko bada ere, sari horren bidez proiektua ezagutaraziko dute. Egitura eta funtzionamendu propioak izango dituen ekimena Donibane Garazin kokatuko da eta Interneten zein paperean plazaratuko da. Bigarren saria Amaia Hennebutte gaztearen haur literaturako *Hiru Otsu* proiektuak jaso du, eta hirugarrena Kanaldude telebistak. Ekimen saria Euskal Kultura Sostengatzeko Herriarteko Sindikatuak antolatuta ohi du, Euskal Kultur Erakundearen babesa du. Euskarari eta euskal kulturari loturiko ekimenak Ipar Euskal Herrian sustatzea da bere helburua.

## Julio Larraz

artistak azken lau urteotan margotutako hirurogei koadro bildu dituzte Biarritzeko Bellevue aretoan. Habanan (Kuba) jaio zen Larraz, baina AEBetan bizi da aspaldidanik. Erakusketa urriaren 5a arte izango da zabalik.



## The Chieftains

Ismaël Lo, Elíades Ochoa eta Korrontzi taldeek parte hartuko dute, besteak beste, Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdian, irailaren 4tik 7ra.

## Laharragueren ikuspegi esferikoa

ABUZTUAREN 31 ARTE Biarritzeko Ander Deuna elizan Franck Laharrague argazkilaria biarritzarraren erakusketa ikusteko parada izango da. *Sphère-Planisphère* izenburupean, hogeita lau lan jarri ditu erakusgai, denak ere ikustera ohituak ez gauden argazkiekin. Izan ere, Laharraguek argazki borobilak aurkezten ditu, esfera batetik begiratuta baleude bezala. Azken finean, argazkien bidez egin ohi den irudikapena zalantzan jartzen du artistak. Erakusketari buruzko informazio gehiago web gune honetan: <http://photographe-biarritz-laharrague.blogspot.com/>



## Taiat konpainiak dantza lantegia eskainiko du Gasteizen

VALENTZIAKO Taiat konpainiako ([www.taiatdansa.com](http://www.taiatdansa.com)) Meritxell Barberak eta Inmaculada Garciak *Azaleratzen den mugimendua* izeneko dantza lantegia zuzenduko dute Gasteizko Artium museoan irailaren 5etik 7ra bitartean. Dantzari profesionalak eta hasi berriek parte har dezakete lantegian. Matrikulak 24 euro balio du (kide elkartuek eta agiridun ikasleentzat 12 euro) eta izena emateko epea irailaren 3an amaituko da.

Jabi Santa Cruz idazleak *Deiaren Ortzadar* gehigarrian: «Denborapasa bilatzen duenarentzat agian poesia ez da generorik egokiena. Poesiara hurbiltzen dena zerbaiten bila dabil. Bila dabilen horri eskaintzen dizkiot nire lerro xumeak, gogoeta egiteko baliagarria gerta dakion, poemaren harira irakurlearen mundu intimora hurbiltzeko bitartekaria izan nahian.»

Iñaki Salvador musikariak *UK aldizkarian:* «Jazzaren etorkizuna ez du markatzen bakarrik hezkuntza arautuaren barnean egoiteak. Ondo dago, oinarritzko urratsa da, baina beste alderdi batzuek ere eragiten dute. Egocera konplexua da. Arazo ekonomikoa dago eta kulturari eragiten dio. Dirua moztekotan, ustez beharrezkoa ez den gastuari kenduko zaio lehenik. Etorkizuna izan dezake jazzak, baina ez da hau une bereziki arrakastatsua, udarekin bero jarri eta jazz jaialdi asko egin arren.»

Mikel Errazkin Aranzadi zientzia elkarteko eta UEUko kideak *Diario de Noticias* egunkarian: «Sarritan, kultur talde bakoitzak bere zilborrera begiratzeko joera du, baina mundu osoko tendentziekin bat egiten dugu azkenean. Nik uste, komunitate zentzu bat edo talde zentzu bat emango digun zerbait behar dugula, atxiki beharreko zerbait. Azken batean, identitatearen sorketa horretan, oroimenera, historiara jotzeko joera dauka, eta ondareak, zentzu horretan baliabide dezente eskaintzen dizkigu (...) Egundarea berreskuratzeko joera permisiboagoa dago, hala nola ondarea ikusteko ikuspegi positiboagoa. (...) Gerora mantentzea nahi badugu eza gutza bat beharko dugu, eza gutzen ez dena ezin baita zaindu. Euskal Herria modu diferente batean ezagutzeko aukera da hau, ondarea aitzakia ona da horretarako.»

## Suehiro Maruoren amaraunean harrapatuta

*Gichi Gichi Kid* (Suehiro Maruo)

Glénat argitaletxea. 160 orrialde (zuri-beltzean)

10 euro

Onartzen dut. Ezjakintasunak eta aurreiritziek bultzatuta, manga komikirik ez dut irakurri orain gutxi arte. Adiskide –friki samar– batek utzitako birekin eman ditut aurreneko zupadak. Eta mareatu naiz ia. Suehiro Maruo autore japoniarrarenak dira bi obrak: *Midori* eta *Gichi Gichi Kid*. “Helduentzako komikiak” dira, surrealista eta perbertsoak. Maruoren lanetan nagusi diren bi osagaiak, sexuak eta biolentziak, bereziki biolentziak, barrenak gupidagabe astintzen ditu. Ez hainbeste *Gichi Gichi Kid*-en, baina bai askok Maruoren maisulantzat jotzen duten *Midori*-n –obra hori ere Glénat argitaletxeak kaleratu du–. Hasiberria izateak izangu du zerikusirik, baina nik errazago irentsi dut *Gichi Gichi Kid*. Inuxenteagoa da, xaloagoa. Sexu eszenarik ez dago ia, eta biolentzia ere gutxi, indarkeria fisiko moduan ulertuta behintzat. Botere bereziak dituen panpin aurpegiko mutikoa da Gichi Gichi. Zintzoa da, baina klasekide nazkagarrienak gogor zigortzen ditu. Eta hor bai, ume baten ikuspegia baino, Maruoren narratiba perbertsoa nagusitzen da, liburuaren bigarren parte ikusgarrian batez ere. Dena den, komikiak umore punttua ere

badauka, eta marrazkiek trazo garbi eta atsegina daukate. Horregatik uste dut manga oldarkorrenean lehenengo urratsak emateko *Midori* baino aproposagoa dela.



Umekeriak alde batera utzi eta gauza gordinagoak probatu nahi dituenak *Midori: la niña de las camelias* irakurri dezake. Patuak zirko surrealista batera eraman duen neska gaztea da protagonista. Mundu krudel batean bizi-rautera behartuta, mago nano baten babes eta maitasuna topatuko ditu Midorik. Maruoren istorioek muzan-e –basakeriak islatzen dituzten estampa edo eskulturak– tradizioak edaten dute, eta komiki hau horren erakusgarri da, ezbaierik gabe. Pertsonaia zatar, desitxuratu eta ankerak, biolentzia, bortxaketak...

la ahaztu zait. Bi komikiak atzekoz aurrera irakurtzen dira, eskuin ezker. Azkar ohituko zara. Oreka galdu eta barrenak nahasten bazaizkizu ez da horregatik.

JON TORNER

## Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak: .....

Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....

Herrialdea: ..... Jaioteguna: .....

N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....

Ordainketa mota:  Bankuz  
 Talotiez  
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOIA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa: .....

Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....

Titularren helbidea: ..... Titularren telefonoa: .....

Entitate: \_\_\_\_\_ Sukurtsala: \_\_\_\_\_ K.D.: \_\_\_\_\_ Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_

Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

### Aukeratu ongietorri oparia

“Kirolaz badakit”  
mahai-jolasa

“888 txiste”  
liburua

“Txoriak txori”  
lamina

%25eko beherapena  
ikasle bazara

**Urtebeteko harpidetza:**  
2008ko prezioak

**135 €** Hego Euskal Herrian  
**165 €** Ipar Euskal Herrian



ARGIA

41